

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

2016ko apirilaren 27ko Alkatearen Dekretuaren bidez honako erabaki da:

Lehen. Azkoitiko udalerrian alokairu soziala sustatzeko laguntzen emakida arautuko duen 2016ko deialdia egitea, ondokoen arabera:

1.º Araudia.

Diru laguntza hauek Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa arautzen duen Ordenantzak arautuko ditu, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2015eko otsailaren 10ean, 26 zk.an, argitaraturikoa.

2.º Aurrekontu-zuzkidura.

Diru laguntzak, Azkoitiko udalaren aurrekontuko 6000.480.933.00.02 partidaren kontura emango dira. Partida honen gehieneko zuzkidura 10.000 €.koa denez hori izango da emango diren diru laguntza guztien gehieneko kopurua.

Eskabideak aurkezteko hurrenkerari erreparatuta emango dira laguntzak, aurrekontuan aurreikusitako dirua bukatu arte. Eskaera aurkeztutzat ulertuko da eskaera eta berarekin aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkezten denean.

Eskaerak diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen baditu, baina jadanik urte horretarako aurrekontua agortuta badago, hurrengo urteko aurrekontuan aurreikusitako kopurutik finantziazioa lortzeko lehentasuna izango dute, eskaeraren hurrenkera errespetatuta.

3.º Diru laguntzen xedeak.

Diru laguntza hauek ondoko xedeetara zuzenduko dira:

a) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza (Ordenantza Arautzailearen I Eranskina).

b) Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak (Ordenantza Arautzailearen II Eranskina).

c) Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan (Ordenantza Arautzailearen III Eranskina).

4.º Onuradunek bete beharreko baldintzak.

Ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

— Alokatu nahi den etxebizitza Azkoitiko udalerrian kokatuta egotea.

— Etxebizitzaren jabea egunean egotea Azkoitiko udalarekin dituen betebeharretan.

— Etxebizitza Bizigune edo Asap programan sartzea, eta eranskin bakoitzean arautzen diren laguntzak lortzeko baldintzak betetzea, baita alokairuen kopuruak ere. Dena den, ezin izango da programa baten baino gehiagotan sartuta egon.

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

Por Decreto de Alcaldía de 27 de abril de 2016, se ha adoptado, el siguiente acuerdo:

Primero. Efectuar la convocatoria de 2016 que regule la concesión de ayudas para promover el alquiler social en el municipio de Azkoitia.

1.º Reglamento.

Las presentes ayudas estarán reguladas por la Ordenanza reguladora del programa de ayudas para fomentar el alquiler social en el municipio de Azkoitia, publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de febrero de 2015, n.º 26.

2.º Dotación presupuestaria.

La concesión de tales ayudas se efectuará con cargo a la partida 6000.480.933.00.02 del presupuesto municipal de Azkoitia. Puesto que la dotación máxima de esa partida es de 10.000 €, esa cifra será la cantidad máxima de todas las ayudas que se concedan.

Las ayudas se concederán por orden de presentación de solicitudes, hasta agotar la cantidad prevista en el presupuesto. Se entenderá que se ha presentado la solicitud cuando se presente la misma acompañada de toda la documentación precisa.

En caso de que la solicitud cumpla los requisitos para obtener ayuda pero el presupuesto de dicho ejercicio esté ya agotado, dicha solicitud tendrá prioridad para obtener financiación desde la cantidad prevista en el presupuesto del año siguiente, siempre de conformidad con el orden de solicitudes.

3.ª Objetivos de las ayudas.

Las presentes ayudas se destinarán a los siguientes objetivos:

a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética (Anexo I de la Ordenanza Reguladora).

b) Ayudas económicas para reformar las viviendas y garantizar su accesibilidad (Anexo II de la Ordenanza Reguladora).

c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra (Anexo III de la Ordenanza Reguladora).

4.ª Condiciones que deben cumplir los beneficiarios.

Se deberán cumplir los siguientes requisitos:

— La vivienda que se desee alquilar estará situada en Azkoitia.

— La propiedad de la vivienda deberá estar al corriente en sus obligaciones respecto al Ayuntamiento de Azkoitia.

— Incluir la vivienda en el programa Bizigune o Asap, cumpliendo tanto la vivienda como el alquiler los requisitos para la obtención de las ayudas que se regulan en cada anexo. No obstante, no se podrá incluir la vivienda en más de un programa.

– Bizigune edota Asap egitasmoetan sartzen diren etxebizitzek eta haien jabeek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

5.º Gehieneko kopuruak.

Diru laguntza bakoitzak, ondoko muga izango du:

a) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza: Ziurtagiria lortzearen %75a (B.E.Z.a barne), gehienez 200 €.

b) Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak: Diru-laguntza etxebizitza eraberritzeko, obren kostuaren %50a izango da (ez dira kostu lagungarritzat hartuko BEZa eta, oro har, edozein zerga). Diru-laguntzaren gehieneko muga 8.000 € izango da, urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuak, Monumentu Multzoa izendatu duen Azkoitiko Hirigune Historikoan kokatzen diren etxebizitzentzat, eta 4.000 €ko gehieneko muga aipatutako Monumentu Multzotik kanpoan gelditzen direnentzat. Hala ere, obren xedea irisgarritasuna bermatzea baldin bada, udalaren laguntzak haien kostuaren %60a estali ahal izango du, gehieneko mugak 10.000 € Hirigune Historikoaren kasuan, eta 5.000 € gainontzeko eremuetan izango direlarik.

c) Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan: Egindako obren baimenagatik ordaindutako zerga eta tasaren % 50aren parekoa eta gehienez ere 450 eurokoa. Ateratzen den kopurua bosten multiplora biribilduko da.

6.º Dokumentazioa.

Eskatzaileek ondoko hauek aurkeztuko dituzte:

1. Eskaera normalizatua, ondoko ereduaren arabera.
2. Eskatzailearen N. Agiria.
3. Etxearen jabetza egiaztatzen duen Erregistro-Ohar sinplea.
4. Bizigune edo ASAP programaren batean etxebizitza sartuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

Horretaz gain,

a) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza: Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren eta fakturaren kopia.

b) Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak:

Obrak egin aurretik:

– Alokabide zerbitzuaren adituen txostena, non zehaztuko diren gutxienez egin beharreko obrak eta, obra horiek eginda, zein izango litzatekeen, alokatzen bada, jasoko den gehienezko errenta.

– Udal teknikarien txostena, obren xedea irisgarritasuna bermatzea dela justifikatuz.

– Etxebizitza Bizigune programak irauten duen epe osoan irauteko konpromisoa azaltzen duen dokumentua.

– Familia-unitatearen diru-sarrerak egiaztatzen dituzten dokumentuek, goian aipatu den Dekretuan xedatutakoaren arabera.

– Burutu behar diren obren aurrekontuak, prezio unitario eta globalekin.

Obrak amaitu ondoren, eta laguntza jaso ahal izateko:

– Alokabideren informe perizialaren kopia.

– Alokabiderekin sinatutako usufruktu-kontratua.

– Obren fakturen kopia.

– Las viviendas y propietarios/as que se integren en Bizigune o Asap deberán cumplir los requisitos establecidos en cada momento por la normativa vigente.

5.º Importes máximos.

Cada ayuda tendrá el siguiente límite máximo:

a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética: 75% del coste de obtención del certificado –IVA incluido–, con un máximo de 200 €.

b) Ayudas económicas para reformar las viviendas y garantizar su accesibilidad: La subvención para la rehabilitación de la vivienda será del 50 % del coste de las obras (no será subvencionable el IVA y, en general, cualquier impuesto). La subvención máxima será de 8.000 € a las viviendas situadas en el Casco Histórico de Azkoitia declarado Conjunto Monumental por el Decreto 17/2005, de 25 de enero, y 4.000 € de subvención máxima a las situadas fuera del citado Conjunto Monumental. No obstante, si el objeto de las obras es garantizar la accesibilidad, la ayuda del ayuntamiento podrá cubrir el 60% del coste de las mismas, con un límite máximo de 10.000 € en el caso del Casco Histórico y de 5.000 € en las restantes áreas.

c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra: Esta ayuda será el equivalente al 50% de lo que se ha abonado por el impuesto y la tasa por la licencia de obra de las obras ejecutadas, sin que pueda superar la ayuda la cantidad de 450 euros. El resultado del cálculo se redondeará hasta un múltiplo de cinco.

6.º Documentación.

Los solicitantes presentarán los siguientes documentos:

1. Solicitud normalizada, según modelo adjunto.
2. Documento de identidad del solicitante.
3. Nota simple registral que acredite la propiedad de la vivienda.
4. Documento que acredite que la vivienda se encuentra incluida en el programa Bizigune o Asap.

Además,

a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética: Certificado de Eficiencia Energética y copias de la factura.

b) Ayudas económicas para reformar las viviendas y garantizar su accesibilidad:

Con anterioridad a la realización de las obras:

– Informe pericial de Alokabide, en el que se señalarán las obras que como mínimo se han de realizar, así como la renta máxima que se obtendría si se alquilara tras la ejecución de las obras.

– Informe del personal técnico municipal que justifique que el objeto de las obras es garantizar la accesibilidad.

– Documento de «Compromiso de incorporación de vivienda en el programa Bizigune durante todo el plazo de duración del programa Bizigune».

– Documentación que justifique los ingresos de la unidad convivencial, según lo dispuesto en el decreto citado anteriormente.

– Presupuestos de las obras a ejecutar, con precios unitarios y globales.

Con posterioridad a la realización de las obras, para poder recibir la ayuda:

– Copia del informe pericial de Alokabide.

– Contrato de usufructo suscrito con Alokabide.

– Copia de las facturas de las obras.

c) Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan:

Etxebizitzaren jabeak Bizigune edo Asap programan etxebizitza sartzeko interesa azalduko dio dagokion entitateari.

Entitate horretako teknikariek etxebizitza ikuskatu eta adituxosten bat emango dute. Bertan gutxienez honako puntuak garatu beharko dira:

Obrak egin behar dituzten edo ez, eta egin beharra badago zeintzuk.

Kobratu ahal izango duen gehieneko errenta.

Etxebizitzaren jabeak ondoren obra horiek egiteko aurrekontuak eskuratuta, obra-baimena eskatuko du eta zerga hau autoliquidatuko du.

Udalak emandako obra-baimenean zehaztutako epean burutu beharko ditu obrak etxebizitzaren jabeak.

Obrak amaitutakoan, diru-laguntza eskaera aurkeztu beharko du Azkoitiko Udalean obren fakturen kopiekin eta alokairu-kontratuaren kopiarekin batera. Azkoitiko udalak egin beharreko ikuskapenak egin ondoren, txosten teknikoa egingo du, dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamenarekin, alkateak edo hark delegatutako organoak erabaki dezan.

Onartutako diru-laguntza bonoetan emango zaio, behin justifikatuta alokatuta izan duela.

Txosten perizialean jasotako obrez gain beste obra batzuk egin baditu, azken hauek ez dute laguntzarik izango.

7.º Epeak.

Aurkeztutako diru-laguntzen eskaerak 3 hilabeteko epean ebatziko dira.

Azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikulua arabera, aurreko pasartean aipatutako epe hori igarota ebazpena jakinarazi gabe eskatzaileari, eskaera ez dela onartu ulertu ahal izango da.

Aurreko urtean emandako edo ezeztatutako diru-laguntzen berri emango da udal iragarki-taulan eta udaletxeko web orrian, kontuan izanda azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikulua eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua diotena. Halaber, diru-laguntzaren kopurua 3.000 €. edo gehiagokoa balitz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, beti ere izaera pertsonaleko datuak babesten dituen legerian xedaturikoa errespetatuz.

8.º Araudi aplikagarria.

Deialdi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, Azkoitiko udalak onarturiko Ordenantza arautzailea eta une bakoitzean indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko legedia aplikatuko da; une honetan, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta berau garatzen duten gainontzeko araudiak.

Bigarrena. Deialdi hau udaleko web orrian, iragarki taulan eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Azkoitia, 2016ko apirilaren 27a.—Alkatea. (3010)

c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra:

La persona propietaria de la vivienda manifiesta a la entidad correspondiente su interés por incluir su vivienda en el programa Bizigune o Asap.

El personal técnico de esas entidades, tras inspeccionar la vivienda, elaborará un informe pericial en el que, como mínimo, deberán desarrollar los siguientes puntos:

Determinar si hay o no necesidad de ejecutar obras; y en caso afirmativo, señalarlas.

Renta máxima que podrá cobrar.

La persona propietaria de la vivienda, a continuación, una vez recabados los presupuestos para la ejecución de dichas obras, solicitará licencia de obra y autoliquidará el impuesto correspondiente.

La persona propietaria de la vivienda deberá ejecutar las obras en el plazo establecido por el ayuntamiento en la licencia de obra.

Una vez finalizadas las obras, deberá presentar en el Ayuntamiento de Azkoitia la solicitud de ayuda económica junto con copias de las facturas de las obras y copia del contrato de alquiler. El Ayuntamiento de Azkoitia, tras realizar las inspecciones precisas, elaborará un informe técnico de propuesta de abono de la ayuda económica, a fin de que Alcaldía o el órgano en quien delegue resuelvan sobre la misma.

La ayuda aprobada se entregará en forma de bonos, siempre que justifique que ha tenido alquilada la vivienda.

En caso de que además de las obras recogidas en el informe pericial se ejecuten otras más, éstas últimas no serán subvencionadas.

7.º Plazos.

El plazo de resolución de las solicitudes de ayuda económica que se presenten será de 3 meses.

De conformidad con el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez cumplido el plazo establecido en el apartado anterior sin notificación de la resolución a la persona o entidad solicitante, se entenderá que la solicitud se ha desestimado.

Teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y por el artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, se dará cuenta en el tablón municipal de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de las ayudas económicas que fueron concedidas o denegadas el año anterior. Asimismo, si el importe de la subvención fuese de 3.000 € o superior, se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, siempre respetando lo dispuesto en la ley de protección de datos de carácter personal.

8.º Reglamento aplicable.

Para cuanto no esté dispuesto expresamente en la presente convocatoria, serán de aplicación la Ordenanza Reguladora aprobada por el Ayuntamiento de Azkoitia y lo establecido en la legislación vigente en ese momento en materia de subvenciones; actualmente la Ley 38/2003 del 17 de noviembre, y demás normativas de desarrollo.

Segundo. Publicar la presente convocatoria en la página web del Ayuntamiento, en el tablón municipal de anuncios y en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Azkoitia, a 27 de abril de 2016.—El alcalde. (3010)